

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituzten Arautegiak moldatzeko AURRETIAZKO KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkarrirenek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, konsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkarrirenek puntu hauei buruz:

- a) *Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) *Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) *Arauaren helburuak.*
- d) *Izan litzkeen bestelako aukera erregulatzalea eta ez-erregulatzaleak.”*

Bergarako Udalaren asmoa da:

- Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen ARAUTEGIA aldatzea; hain zuzen ere: “Bergarako Udal Euskallegitik kanpo euskaraz ikasten dutenentzako dirulaguntzen arautegia” eta “Udako Euskal Unibertsitatearen (UEUren) ikastaroetan parte hartu dutenentzako dirulaguntzak”.
- Orain arte aipatutako arautegi horretatik kanpo zegoen beste dirulaguntza bat arautegi honetara gehitzea:
 - IDAZLE ESKOLAK (Bergarako UNEDen baitan) antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten bergararrentzako dirulaguntzak
- Eta dirulaguntza berri bat ere onartzea eta arautegi horretan integratzea:
 - “Eusko Jaurlaritzak homologatuta “Haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale zein zuzendari” titulua euskaraz lortzen dutenentzako dirulaguntzak”

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatzen dituen programen barruko dirulaguntzak arautzen dituen arautegi moldatuaren aurretiko konsulta publikoa egitea (aldaketa onartu baino lehen).

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteeek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2022ko maiatzaren 30era arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: idazkaritza@bergara.eus
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1).

ARAUTEGI MOLDATUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

1. “*Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskaraz ikasten dutenentzako dirulaguntzen arautegia*” eta “*Udako Euskal Unibertsitatearen (UEUren) ikastaroetan parte hartu dutenentzako dirulaguntzak*”. Bi dirulaguntza hauen kasuan, irizpide batzuk zehaztu nahi dira:
 - Noiztik egon behar diren erroldatuta dirulaguntza jaso ahal izateko.
 - Langabetuei, jubilatuei eta ikasleei dirulaguntza gehiago emateko eskatzen zaizkien irizpideak zehaztea.
 - UEUn ikastaroak egindakoei ematen zaizkien lagunten kasuan, egoitza-gastuak ez ordaintzea.
- 2.- IDAZLE ESKOLAK (Bergarako UNEDen baitan) antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten bergarrentzako dirulaguntzaren kasuan, irizpide batzuk egokitu nahi dira eta arautegi orokorrean integratu nahi da.
- 3.- Eusko Jaurlaritzak homologatuta “Haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale zein zuzendari” titulua euskaraz lortzen dutenentzako dirulaguntzaren kasuan, orain proposatutako dirulaguntza berria da eta arautegi orokorrean txertatu nahi da.

ARAUTEGIAREN ALDAKETAREN HELBURUAK

- Dirulaguntzen kopuruak zehazteko orduan irizpideak argiago izatea.
- Eskatzaileek ere argiago izatea aurkeztu behar dituzten agiriak.
- Lau dirulaguntzak arautegi orokorrean integratzea.

EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ ERREGULATZAILEAK

Ez da aurreikusi bestelako aukera erregulatzailerik.

Argitaratze-data: 2022/05/09

CONSULTA PREVIA a la modificación de la Normativa por la que se regulan diversas subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ha establecido una serie de innovaciones en cuanto a la iniciativa legislativa de las administraciones públicas y la elaboración de reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

"1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabarán la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias."*

La intención del Ayuntamiento de Bergara es:

- La modificación de la NORMATIVA por la que se regulan diversas subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara; en concreto: "normativa de subvenciones para aquellas personas que estudian euskera fuera del Euskaltegi Municipal de Bergara" y "normativa que regula las subvenciones para acudir a la Universidad Vasca de Verano (UEU)".
- La incorporación a la citada normativa de una subvención que hasta ahora se regulaba aparte:
 - Subvenciones a habitantes de Bergara que participen en los módulos y conferencias organizados por IDAZLE ESKOLA
- Y la aprobación e integración de una nueva subvención en dicha normativa:
 - Subvenciones para la obtención en euskera del título de monitor/a y director/a de actividades de tiempo libre infantil y juvenil homologados por el Gobierno Vasco

Con el fin de dar cumplimiento al procedimiento establecido en la Ley 39/2015, el Ayuntamiento ha acordado someter a consulta pública previa (con carácter previo a la aprobación de la modificación) la Normativa modificada por la que se regulan las subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Bergara.

Por tanto, la ciudadanía, instituciones y asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones **hasta el 30 de mayo de 2022**, por cualquiera de estas dos vías:

- A través de un correo electrónico enviado al buzón idazkaritza@bergara.eus.
- Presentando las sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martín Agirre 1).

NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA

1.- “NORMATIVA de subvenciones para aquellas personas que estudian euskera fuera del Euskaltegi Municipal de Bergara” y “NORMATIVA que regula las subvenciones para acudir a la Universidad Vasca de Verano (UEU)”. En el caso de estas dos normativas, se pretende concretar más algunos de los criterios para la distribución de las subvenciones:

- Fecha de empadronamiento para poder acceder a la subvención.
- Concretar los criterios exigidos para conceder mayor subvención a las personas desempleadas, jubiladas y estudiantes.
- No abonar los gastos de hospedaje en el caso de las ayudas que se concedan a las personas que han realizado cursos en la UEU.

2.- En el caso de las subvenciones a habitantes de Bergara que participen en los módulos y conferencias organizados por IDAZLE ESKOLA (en el seno de la UNED de Bergara), se pretende concretar algunos criterios e integrarla en la normativa general.

3.- En el caso de las subvenciones para la obtención en euskera del título de monitor/a y director/a de actividades de tiempo libre infantil y juvenil homologados por el Gobierno Vasco se trata de una normativa nueva que se propone ahora y se quiere integrar en la normativa general.

OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA

- Fijar unos criterios más claros para la determinación de las cuantías de las subvenciones
- Concretar mejor la documentación a presentar por las personas solicitantes.
- Integrar las 4 normativas en la normativa general.

OTRAS OPCIONES REGULATORIAS O NO REGULATORIAS QUE PUEDAN EXISTIR

No se contempla ninguna otra opción reguladora.

Fecha de publicación: 09/05/2022